# EBAZPENA / RESOLUCION

**Espediente zk./ Expediente nº:** 6759/2026
**Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen**
**Prozedura/ Procedimiento:** Dirulaguntza zuzenak edo izendunak/ Subvenciones Directas o Nominativas
**Espedientearen gaia/ Asunto del Expediente:** 2026 AEPIE ELKARTEARI DIRULAGUNTZA / SUBVENCIÓN POLIGONO ERLETXE 2026

## EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

| | |
|---|---|
| **ESKABIDEAREN DATUAK** | **DATOS DE LA SOLICITUD** |
| Entitate eskatzailea: ASOCIACION EMPRESARIAL DEL POLIGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) | Entidad solicitante: ASOCIACION EMPRESARIAL DEL POLIGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) |
| IFK zk.: G01664804 | CIF nº: G01664804 |
| Eskabidearen data: 24/06/2026 21:30 | Fecha de la solicitud: 24/06/2026 21:30 |
| **ARAUDI OROKORRA** | **NORMATIVA GENERAL** |
| Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) eta 28. artikuluak eta Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 EDko 65. artikulua. | Artículos 22.2.a) y 28 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones y artículo 65 del R.D. 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley. |
| **ARAUDIA** | **NORMATIVA** |
| Ordenantza Orokorra: Udalbatzak Diru-laguntzen Emakida Arautzen duen Ordenantza Orokorra 2005eko ekainaren 24an onetsi zuen eta 2007ko azaroaren 28an aldatu. | Ordenanza General: Ordenanza General Reguladora de la Concesión de Subvenciones aprobada el 24 de junio de 2005 y modificada el 28 de noviembre de 2007, por el Ayuntamiento Pleno. |

**Monica Bailón Fernández (1, guztira 1)**
Zinegotzia / Concejal
Sinaduraren data: 10/07/2026
HASH: 979db9feffc6ae13cdb066d7c0c8e37f

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026

Baliozkotze Kod.: 96LCK52PQRSY9FW9YSXWW9HCG
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 13

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa: 2024ko maiatzaren 16ko 2024-1078 Ebazpenaren bidez onartua, 2024-2027 aldirako.

Plan Estratégico de Subvenciones: Aprobado mediante Resolución 2024-1078 de 16 de mayo de 2024 para el período 2024-2027.

Transferentzia Arrunten Eranskina: 2.026ko ekitaldirako Aurrekontuko Transferentzia Arrunten eranskinean, 24.4331.48120 aurrekontu-partidan, ASOCIACION EMPRESARIAL DEL POLIGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXEINDUS TRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) entitateari 75.000€-ko dirulaguntza izenduna ematea aurreikusten da.

Anexo de Transferencias Corrientes: El anexo de Transferencias Corrientes del Presupuesto para el ejercicio 2.026 comprende, en la partida presupuestaria nº 24.4331.48120, una previsión de una subvención nominativa de 75.000€, con destino a ASOCIACION EMPRESARIAL DEL POLIGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXEINDUS TRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE)

Esparru horretan dirulaguntzak emateko eskumena Monica Bailón Fernández du, 2023ko uztailaren 13ko 2023-1561 dekretuaren bidez.

La competencia de conceder subvenciones en este ámbito se atribuye a Monica Bailón Fernández mediente decreto nº 2023-1561, de 13 de julio de 2023.

**AURRETIAZKO TXOSTENAK**

**INFORMES PREVIOS**

1.-Toki Garapen eta Enpleguko teknikariaren txostena (2026/07/02).

1.-Informe de la Técnica de Desarrollo Local y Empleo (02/07/2026).

2026(e)ko uztailaren 10(a)(e)ko PR/2026/2274 ebazpen proposamena ikusita, 2026(e)ko uztailaren 10(a)(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/2274 de 10 de julio de 2026 fiscalizada favorablemente con fecha de 10 de julio de 2026.

## EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

**LEHENENGOA.-** Ondoren aipatzen den entitateari / elkarteari diru-laguntza ematea, hain zuzen ere, adierazten zenbatekoa, eta zehazten den programarako.

**PRIMERO.-** Otorgar subvención a la entidad / asociación que se cita a continuación, por la cuantía y con destino al programa que se detalla.

ASOCIACION EMPRESARIAL DEL POLIGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXEINDUS TRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE)
G01664804
Erletxe industrialdea dinamizatzeko eta hobetzeko jarduerak / Actividades de dinamización empresarial y mejora del polígono Erletxe
75.000,00 €

**BIGARRENA.-** Aipatutako entitateari / elkarteari onetsitako kopurua ordaintzea bi abonutan. Lehenengoa, aldez aurrekoa, 60.000 €-koa, %

**SEGUNDO.-** Abonar a la entidad / asociación señalada la cantidad aprobada en dos abonos.. El primero de carácter anticipado de 60.000 €,

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026

Baliozkotze Kod.: 96LCK52PQRSY9FW9YSXWW9HCG
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 13

80koa, laguntza emateko ebazpenaren arabera. Bigarren eta azken ordainketa, 15.000 eurokoa, gainerako % 20ari dagokiona, dirulaguntzaren justifikazioa onartu ondoren. Ez da eskatzen inolako bermerik eratzea.

**HIRUGARRENA.**- Entitate / elkarte onuradunek helburua bete, proiektua exekutatu, jarduera/k egin edo diru-laguntza ematea oinarritzen duen portaera izan behar dute.

**LAUGARRENA.**- Elkarte onuradunak, dirulaguntza jaso aurretik, diru-laguntzaren baldintzak ezartzen dituen hitzarmena sinatu beharko du.

**BOSGARRENA.**- Proiektuaren funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, bai garapenean, bai exekuzioan, bai hartzaileengan zein protagonistengan, proiektua egiteko epea amaitu baino lehen eskatu beharko zaio dagokion zinegotziari, idatziz, beronek espresuki baimendu beharko duelarik.

**SEIGARRENA**.- Entitate edo elkarte onuradunek Udalaren Erregistroan jasotako funtsen aplikazioari dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte 2 hilabete baino gutxiagoko epean. Diruz lagundutako programa edo jarduera bukatzen den egunetik hasita zenbatuko da epea edo, kasuan kasu, dirulaguntza ematea onartu izanaren jakinarazpena jasotzen duten egunaren ondorengotik hasita, baldin eta jakinarazpena diruz lagundutako proiektua edo jarduera bukatu ondoren jasotzen badaea.

correspondiente al 80% con la Resolución de la concesión de la ayuda. Un segundo y último pago de 15.000 €, correspondiente al 20 % restante, tras la aceptación de la justificación de la subvención. No exigiéndose la constitución de garantía alguna

**TERCERO.-** Las entidades / asociaciones beneficiarias deberán cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la/s actividad/es o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

**CUARTO.-** La asociación beneficiaria deberá suscribir el convenio regulador de las condiciones de la subvención, antes de que se le abone la cantidad prevista.

**QUINTO.-** Cualquier modificación sustancial del proyecto, tanto en el desarrollo del mismo, como en la ejecución, como en la población destinataria o protagonista del mismo, habrá de ser solicitada antes de que concluya el plazo para la realización del proyecto, por escrito a la concejalía correspondiente, quien deberá expresamente autorizarla.

**SEXTO.-** Las entidades o asociaciones beneficiarias deberán presentar en el Registro del Ayuntamiento la documentación justificativa de la aplicación de los fondos recibidos en un plazo inferior a los 2 meses contados desde la finalización del programa o actividad subvencionado o, en su caso, contados a partir del día siguiente al de la recepción de la notificación de la resolución de concesión de la subvención, cuando ésta sea posterior a la conclusión del proyecto o la actividad subvencionada

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**



Baliozkotze Kod.: 96LCK52PQRSY9FW9YSXWW9HCG
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 13

**HITZARMENA**
**6759/2026 Esp.**

GALDAKAOKO UDALAREN ETA “ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE)” ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA 2026. URTERAKO

**BILDU DIRENAK**

ALDE BATETIK, Mónica Bailón Fernández, Galdakaoko Udaleko Ekonomia Sustapeneko, Merkataritzako, Ostalaritzako, eta Turismoko arloko zinegotzi delegatua den aldetik (NAN zk.: , Galdakaoko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz.

ETA BESTETIK, Begoña Ojanguren Eguiraun (NAN zk.: ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) elkartearen presidente den aldetik (IFK zk.: G01664804, eta egoitza soziala: Erletxeko Industrialdea, B pabiloia, 5. nabea, 48960 Galdakao).

**ADIERAZI DUTE**

**LEHENENGOA**.- ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) irabazi asmorik gabeko elkartea da eta bere helburu nagusien artean daude Galdakaoko enpresa-sarearen dinamizazioa sustatzea, lehiakortasuna hobetzea eta berrikuntza sustatzea, bai eta jarduera ekonomikoa bultzatzea eta enpresen arteko lankidetza sustatzea ere, industrialdearen eta udalerriaren beraren mesedetan.

**BIGARRENA**.- ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) elkarteak, 2026eko ekainaren 24an, 2026. urtean zehar ekintza- eta jarduera-programa bat egiteko dirulaguntzaren eskaera aurkeztu zuen.

**HIRUGARRENA**.- ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) elkarteak

**REUNIDOS**

DE UNA PARTE, Dª Mónica Bailón Fernández, con DNI concejala delegada de Promoción Económica, Comercio, Hostelería y Turismo del Ayuntamiento de Galdakao, actuando, en nombre y representación del Ayuntamiento de Galdakao.

Y DE OTRA, Dª Begoña Ojanguren Eguiraun, con DNI en calidad de presidenta de la ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE – EIEE), con C.I.F. G01664804 y domicilio social en el Polígono Industrial Erletxe, Pabellón B, nave 5, 48960 Galdakao.

**MANIFIESTAN**

**PRIMERO**.- La ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) es una asociación sin ánimo de lucro cuyas actividades tienen como objetivos primordiales el fomento de la dinamización, mejora competitiva e innovación del tejido empresarial de Galdakao, junto con el impulso de la actividad económica y el fomento de la colaboración entre las empresas en beneficio del polígono y el propio municipio.

**SEGUNDO**.- La ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA de Galdakao presentó con fecha 24 de junio de 2026 la solicitud de subvención para la realización de un programa de actuaciones y actividades a realizar durante el año 2026.

**TERCERO**.- La ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEP IE-EIEE) ha presentado

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 13

erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu du honako hau aitortzeko: ez duela debekurik dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako onuradun izaera lortzeko. Halaber, Bizkaiko Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez duela egiaztatu du, bai eta ez duela administrazio- edo zigor-arloko zehapenik izan, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarrenik, sexu, arraza edo erlijio arrazoiengatiko diskriminazioa egin izanagatiko zehapenak barne.

declaración de no estar incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria prevista en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, de 17 de noviembre. Asimismo, ha acreditado no tener deudas con la Hacienda Foral de Bizkaia ni con la Seguridad Social, y de no haber sido sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, incluidas las sanciones por incurrir en discriminación por razón de sexo, raza o religión.

**LAUGARRENA**.- Galdakaoko Udaleko aurrekontuan, 2026eko ekitaldirako, 75.000,00 euroko dirulaguntza izenduna dago aurreikusita ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) elkartearentzat, 24.4331.48120 zenbakidun aurrekontu partidan zorduntzeko, 2026eko urtarriletik abendura bitartean egiteko ekintzen eta jardueren programan laguntzeko, Erletxe industrialdeko jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enpresak dinamizatzeko.

**CUARTO**.- Que el Presupuesto del Ayuntamiento de Galdakao para el ejercicio 2026 comprende una previsión de subvención nominativa de 75.000,00 euros a favor de la ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) de Galdakao, con cargo a la partida presupuestaria n.º 24.4331.48120 cuyo objeto consiste en la colaboración con el programa de actuaciones y actividades a realizar desde enero a diciembre del año 2026 con el objetivo del fomento de la actividad económica y dinamización empresarial del Polígono Industrial Erletxe.

**BOSGARRENA**.- Galdakaoko Udalak, zinegotzi delegatuaren Ebazpenaren bidez, honako hau ebatziko du: ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) elkarteari (IFK zk.: G01664804) aipatutako dirulaguntza ematea, hitzarmen arautzaile bat izenpetzeko baldintzarekin; eta agiri honekin baldintza hori bete da.

**QUINTO**.- Que el Ayuntamiento de Galdakao mediante Resolución de concejala delegada del Ayuntamiento de Galdakao resolverá conceder a la ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE-ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) de Galdakao, con CIF G01664804 la citada subvención bajo la condición de suscripción de un convenio regulador, condición que se cumple con el presente documento.

Azaldutakoaren ondorioz, alderdi biak ados jarri dira, eta Lankidetza Hitzarmen hau izenpetzeko interesa adierazi dute, zeinak honako klausula hauek biltzen dituen:

Por lo expuesto, ambas partes, de mutuo acuerdo, manifiestan su interés en la suscripción del presente Convenio de Colaboración de conformidad con las siguientes:

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026

Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 13

## KLAUSULAK

**LEHENENGOA.- Helburua**

Hitzarmen honen helburua da Galdakaoko Udalaren eta ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) elkartearen arteko lankidetzaren araubidea eta baldintzak arautzea, lankidetza-hitzarmen honen xedea osatzen duten ekintza eta jarduera hauek antolatzea eta egitea bermatzeko:

1. programa: Galdakaoko Udalak eta Elkarteak elkarlanean jardutea Erletxeko industrialdean dauden beharrizanak eta gabeziak identifikatzeko, eta hautemandako beharrizan horietarako hobekuntza-ekintzak sustatzeko.

2. programa: Industrialdean asoziazionismoa sustatzeko jarduerak egitea, eta horretarako, Elkarteak eta Galdakaoko Udalak elkarlanean jarduerak antolatzea.

3. programa: Elkartearen erantzukizun zibila eta elkarteko zuzendaritzaren erantzukizun zibila estaliko duten aseguruak kontratatzea.

4. programa: Enpresa-lehiakortasuna sustatzeko jarduerak egitea.

5. programa: Galdakaoko enpresak dinamizatzea, lehiakortasuna hobetzea, enpresa-sarea berritzea, enpresen arteko lankidetza sustatzea eta industrialdearen azpiegiturak, mugikortasuna, zerbitzuak eta abar hobetzea helburu duen beste edozein ekintza.

Enpresei zuzendutako jarduketak Galdakaoko udalerriko enpresa guztientzat irekiak izan beharko dira (onuradun erakundeko kide izan zein ez), eta ez da onartuko bazkideei soilik zuzendutako jarduketa itxirik, ez eta enpresek bakarka edo beste udalerri batean partzialki gauzatutakorik ere.

## CLAUSULAS

**PRIMERA.– Objeto**

El objeto del presente Convenio es regular el régimen y los términos de la colaboración del Ayuntamiento de Galdakao y la ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL POLÍGONO INDUSTRIAL ERLETXE - ERLETXE INDUSTRIALDEKO ENPRESA ELKARTEA (AEPIE-EIEE) de Galdakao con el fin de garantizar la realización de la organización y celebración de las siguientes actuaciones y actividades que conforman el objeto de este Convenio de Colaboración:

Programa 1: Actuaciones en cooperación entre la Asociación y el Ayuntamiento, en la identificación de las necesidades y deficiencias existentes en el Polígono de Erletxe, para impulsar actuaciones de mejora de las necesidades detectadas.

Programa 2: Actividades de fomento del asociacionismo en el polígono, organizando actividades en colaboración entre la Asociación y el Ayuntamiento de Galdakao.

Programa 3: Contratación de seguros que cubran la Responsabilidad Civil de la Asociación y Responsabilidad Civil de Directivos de la Asociación.

Programa 4: Actuaciones para impulsar la competitividad empresarial

Programa 5: Cualquier otra actuación que tenga como objetivo la dinamización de empresas, mejora competitiva e innovación del tejido empresarial de Galdakao, el fomento de la colaboración entre las empresas y la mejora del polígono en el ámbito de infraestructuras, movilidad, servicios, etc.

Las actuaciones dirigidas a empresas deberán ser abiertas al conjunto de las empresas del municipio de Galdakao (pertenezcan o no a la entidad beneficiaria), no aceptándose actuaciones cerradas a personas socias ni tampoco actuaciones de empresas a título individual o las realizadas parcialmente en otro municipio.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 13

**BIGARRENA.- Dirulaguntzaren zenbatekoa**
Galdakaoko udalak Asociación Empresarial del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) elkartearen jarduerari laguntzeko 75.000,00 euroko ekarpena egingo dio.

Onuradunek egiten dituzten jarduerak eta eskurapenak gorabehera, eta diruz lagun daitezkeen gastuak direnean, Udalak onuradunek garatzen dituzten jardueretan lagundu dezake, eta horretarako, jarduerok garatzeko behar diren azpiegiturak eta elementuak euren esku jarri, onuradunek eskatu badituzte. Entrega horiek gauzazko laguntzatzat joko dira, baldin eta dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Bosgarren Xedapen Gehigarriak aipatzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

**HIRUGARRENA.-Dirulaguntza ordaintzea**
Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) elkarteari bi ordainketatan emango zaio dirulaguntza. Lehenengoa, aldez aurrekoa, 60.000 €-koa izango da (% 80), eta laguntza emateko ebazpenarekin batera emango da. Bigarren eta azken ordainketa 15.000 eurokoa izango da (gainerako % 20a), eta dirulaguntzaren justifikazioa onartu ondoren emango da. Ez da eskatzen inolako bermerik eratzea.

**LAUGARRENA.-** Galdakaoko Udalak, ahal den neurrian eta egoerak ahalbidetzen duenean, Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) elkartearen esku jarri ditzake, beharrezkotzat jotzen dituen baldintzekin, elkarteak eska diezazkiokeen ekipamenduak, jarduerak hobeto garatzeko.

**SEGUNDA.- Cuantía de la Subvención**
El Ayuntamiento de Galdakao contribuirá al sostenimiento de la actividad de la Asociación Empresarial del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) con una aportación de 75.000,00 euros.

Sin perjuicio de las actividades o adquisiciones que realicen los/las beneficiarios/as y que constituyan gastos subvencionables, el Ayuntamiento podrá colaborar con las actividades desarrolladas por los beneficiarios/as mediante la puesta a su disposición de infraestructuras y elementos necesarios para el desarrollo de las mismas y que sean solicitados por aquéllos/as. Dichas entregas tendrán la consideración de ayudas en especie cuando reúnan los requisitos a que se refiere la Disposición Adicional Quinta de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

**TERCERA.- Pago de la subvención**
El pago de la subvención a la Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) se realizará en dos abonos. El primero de carácter anticipado de 60.000 €, correspondiente al 80% con la Resolución de la concesión de la ayuda. Un segundo y último pago de 15.000 €, correspondiente al 20 % restante, tras la aceptación de la justificación de la subvención. No exigiéndose la constitución de garantía alguna.

**CUARTA.-** El Ayuntamiento de Galdakao, en la medida de lo posible y cuando las circunstancias se lo permitan, podrá, con las condiciones que estime necesarias, poner a disposición de la Asociación Empresarial del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) de Galdakao los equipamientos municipales que ésta pueda requerirle para mejor prestación de sus actividades.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 13

**BOSTGARRENA.- Programaren edo jardueren publizitatea**

5.1.- Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) elkarteak bere gain hartuko ditu programak egiteko gastuak, bai eta horien publizitateak sorrarazitakoak ere. Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) elkarteak, Galdakaoko Udalak diruz lagundutako programaren edo jardueren finantzaketari buruzko publizitate egokia eman beharko du.

Era berean, hitzarmen honen xede den programa zabaltzeko egingo den publizitatea euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da nahitaez.

5.2.- 18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa, eta horren ondoko aldaketak beteko dira, eta beraz, publizitatean ezingo da tabakoaren ezta edozein motatako alkoholdun edarien kontsumoa sustatu (kartelak, babesa, sariak etab.).

5.3.- 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena beteko da, eta jardueren publizitateetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin beharko dute. Era berean, pertsonak ezingo dira, haien sexuaren arabera, giza duintasunari dagokionez maila altuagoetan edo baxuagoetan aurkeztu, ez eta sexu-objektu soil gisa; era berean, ezingo da emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo/eta bultzatu.

5.4.- Dirulaguntza jaso duten jardueren zabalkundeari dagokionez, entitate onuradunak dituen betebeharrak eragotzi gabe, jasotako dirulaguntzen berri eman beharko du, hain zuzen, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako eran eta baldintzak betez.

**QUINTA.- Publicidad del programa o actividades.**

5.1.- La Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) asumirá los gastos de la realización de los programas, así como los generados por la publicidad de los mismos. La Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe-Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) deberá dar la adecuada publicidad a la financiación por el Ayuntamiento de Galdakao del programa o actividades objeto de subvención.

Asimismo, será de obligado cumplimiento la redacción en euskera o en euskera y castellano de la publicidad que se realice con objeto de difundir el programa objeto de este convenio.

5.2.- En su publicidad, y en cumplimiento de la Ley 18/1998 de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias y sus posteriores modificaciones, no se podrá promocionar el consumo de tabaco ni bebidas alcohólicas en ninguna de sus formas (cartelería, patrocinio, premios, etc.).

5.3.-En la publicidad de las actividades, y en cumplimiento de Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres deberán realizar un uso no sexista del lenguaje, asimismo no podrán presentar a las personas como inferiores o superiores en dignidad humana en función de su sexo, o como meros objetos sexuales, así como justificar, banalizar y/o incitar a la violencia contra las mujeres.

5.4.- Sin perjuicio de las obligaciones respecto a la difusión de las actividades subvencionadas, la entidad beneficiaria deberá dar publicidad de las subvenciones percibidas en los términos y condiciones establecidos en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 13

Lege horretako 5.4 artikuluan dagoen aurreikuspenaz baliatuz gero, Dirulaguntzen Datu-base Nazionala izango da publizitate-arloko betebeharrak betetzeko bitarteko elektronikoa.

En el caso de que se haga uso de la previsión contenida en el artículo 5.4 de la citada Ley, la Base de Datos Nacional de Subvenciones servirá de medio electrónico para el cumplimiento de las obligaciones de publicidad.

**SEIGARRENA.- Xede bererako bestelako dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreren edo baliabideen bateragarritasuna edo bateraezintasuna.**

Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) elkarteak udalari jakinarazi beharko dio diruz lagundutako programa finantzatzen duten bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso baditu.

Galdakaoko Udalak emandako dirulaguntza bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik helburu bererako ematen dirulaguntzekin.

Hala ere, dirulaguntza izendun hau bateraezina izango da Udalak ekitaldi berean lehia-araubidean emandako beste edozeinekin.

Edozein kasutan ere, dirulaguntzen bitartez edo beste iturri batzuetatik lortutako finantzazioaren kopuru osoak ezingo du diruz lagundutako programaren kostua gainditu.

**SEXTA.- Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad.**

Deberá comunicarse por parte de la Asociación Empresarial del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien el programa subvencionado.

La subvención del Ayuntamiento de Galdakao será compatible con las de otras administraciones o entes públicos o privados para la misma finalidad.

Sin embargo, esta subvención será incompatible con cualquier otra concedida en régimen de concurrencia por el Ayuntamiento de Galdakao con cargo al mismo ejercicio.

En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida, por subvenciones y otras fuentes, no podrá resultar superior al coste del programa subvencionado.

**ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko epea**

Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) elkarteak jasotako funtsen erabilera justifikatu beharko du, **2 hilabeteko epea** bete baino lehen, **diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik** hasita, edo, hala badagokio, hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunetik hasita, baldin eta proiektua edo diruz lagundutako jarduera amaitu ostean sinatzen bada.

**SÉPTIMA.- Plazo de justificación de la subvención**

La Asociación Empresarial del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) deberá justificar, en todo caso, la aplicación de los fondos percibidos, en un plazo inferior a los **2 meses contados desde la finalización de la actividad subvencionada** o, en su caso, contados a partir del día siguiente al de la fecha del presente convenio, cuando ésta sea posterior a la conclusión del proyecto o la actividad subvencionada.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 13

**ZORTZIGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko modua**

Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) elkarteak ezarritako baldintzak bete dituela eta diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatu direla egiaztatu beharko du.

Dirulaguntza justifikatzeko balio juridikoa izango du honako agiri hauek dituen justifikazioko kontu arruntak:

a) Ziurtagiria, dirulaguntza emateko ezarri zen helburua aurkeztutako proiektuaren arabera bete dela egiaztatzen duena. (Udalak emandako ereduaren arabera).

b) Jarduketa-memoria; egindako jarduerak eta lortutako emaitzak aipatuko dira eta jardueren dokumentazioa erantsiko zaio.

c) Programa burutzeari dagozkion diru-sarrera eta gastu guztien balantzea; beste erakunde, entitate edo/eta pertsona publiko edo/eta pribatuk emandako bestelako laguntzak edo/eta dirulaguntzak zehaztu beharko dira. Balantzea idazkariak izenpetu beharko du eta entitate onuradunaren presidenteak oniritzia eman beharko dio. (Udalak emandako ereduaren arabera).

d) Beste Erakunde Publikoen dirulaguntzak edo laguntzak emateko erabakien kopia.

e) Gastuen jatorrizko fakturak eta horien banketxeko ordainagiriak, gutxienez emandako dirulaguntzaren zenbatekoraino, dirulaguntza egoki erabili den arrazoizko ziurtasuna eman dezaketenak, laguntza bat dagokion balidaziorik gabe justifikatzeko. Gastu horiek **urte naturala amaitu baino lehen** ordaindu beharko dira.

f) Hitzarmen honek xede duen programa zabaltzeko egin den publizitatea; bertan Galdakaoko Udalaren babesa agertu beharko da. Era berean, publizitate hori euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da nahitaez.

**OCTAVA.- Forma de justificación de la subvención**

La Asociación Empresarial del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) estará obligada a acreditar el cumplimiento de las condiciones impuestas y de la realización del proyecto o actividad subvencionada.

Tendrá validez jurídica para la justificación de la subvención la cuenta justificativa ordinaria que comprenda los siguientes documentos:

a) Certificación, de que ha sido cumplida la finalidad para la cual se otorgó la subvención, conforme al proyecto presentado. (Según modelo que será facilitado por el Ayuntamiento).

b) Memoria de actuación, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos, acompañando de documentación de las acciones realizadas.

c) Balance de todos los ingresos y gastos correspondientes a la ejecución del programa, detallando las ayudas y/o subvenciones concedidas y/o recibidas para el programa solicitado procedentes de otras instituciones, entidades y/o personas públicas y/o privadas, suscrito por el/la secretario/a con el visto bueno del/de la presidente/a de la entidad beneficiaria. (Según modelo que será facilitado por el Ayuntamiento).

d) Copia de los acuerdos de concesión de subvenciones o ayudas por otras instituciones públicas.

e) Facturas originales de los gastos y justificantes de pago bancarios de las mismas hasta el importe, como mínimo, de la subvención concedida, como muestra que permita obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención a efectos de justificar una ayuda sin la validación correspondiente. Dichos gastos deberán haber sido efectivamente abonados antes de la **finalización del año natural**.

f) La publicidad realizada con objeto de difundir el programa objeto de este convenio, debiendo de figurar en toda ella el patrocinio del Ayuntamiento de Galdakao. Asimismo, será de obligado cumplimiento la redacción en euskera, o en euskera y castellano de dicha publicidad.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 13

Zabalkunde-neurriak diruz lagundutako helburuari egokitu beharko zaizkio, bai moduari bai iraupenari dagokionez; entitate emailearen irudi instituzionala sartu beharko da, hala badagokio, bai eta finantzaketa publikoari buruzko legendak ere, karteletan, oroigarrizko plaketan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoetan zein ikus-entzunezkoetan, eta komunikabideetan egindako aipamenetan.

g) Gastua hobeto justifikatzeko Udalak eska dezakeen beste edozein dokumentazio, hala nola aurkeztutako fakturak jatorrizkoak direla dioen erantzukizun-adierazpena, eta faktura horiek beste entitate publiko zein pribatutan ez aurkezteko konpromisoa.

Las medidas de difusión deberán adecuarse al objeto subvencionado, tanto en su forma como en su duración, pudiendo consistir en la inclusión de la imagen institucional de la entidad concedente, así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

g) Cualquier otra documentación que el Ayuntamiento pudiera requerir en orden a la mejor justificación del gasto, como una declaración responsable en la que se indique que las facturas presentadas son originales y compromiso de no presentar dichas facturas ante cualquier otra entidad pública o privada

**BEDERATZIGARRENA.- Zehapen-araubidea**

Dirulaguntzen arloan, administrazioko arau-hausteak dira, Legean eta dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza orokorraren 47, 48 eta 49 artikuluetan tipifikatuta dauden egitateak eta ez-egiteak. Zehazki, arau-hauste arina da jasotako funtsei emandako erabilera frogatzen duten kontuak epez kanpo aurkeztea.

**NOVENA.- Régimen sancionador.**

Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones las acciones y omisiones tipificadas en la Ley y en los artículos 47, 48 y 49 de la Ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones. En concreto constituye infracción leve la presentación fuera de plazo de las cuentas justificativas de la aplicación dada a los fondos recibidos.

**HAMARGARRENA.- Dirulaguntzaren finantza-kontrola**

Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) elkarteak honako hau onartuko du: Udalak diruz lagundutako prestazioetan egokitzat jotzen dituen egiaztapenak eta jarraipena egitea.

Era berean, Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) elkarteak onartu egingo du eskumena duten kontrol-organoek egiaztapenak eta finantza-kontrola egitea, eta horretarako, hala eskatzen bazaio, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/20103 Legearen 44.4.a), b), c), d), f) eta 5 artikuluan dagoen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

**DECIMA.- Control financiero de la subvención.**

Se someterá la Asociación Empresarial del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) a las actuaciones de comprobación y seguimiento de las prestaciones subvencionadas que el Ayuntamiento estime oportuno efectuar.

Así mismo se someterá la Asociación Empresarial del Polígono Industrial Erletxe-Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) a las actuaciones de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes debiendo aportar a tal efecto, si así fuera requerida, la documentación contemplada en el artículo 44.4.a), b), c), d) y f) y 5. de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 13

Galdakaoko Udala

Asociación Empresarial Del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) elkarteak kontabilitate-liburuak, eginbide-erregistroak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta eduki beharko ditu, indarreko legeriak agindu bezala, egiaztatze- eta kontrol-jarduerak ondo egingo direla bermatzeko.

La Asociación Empresarial del Polígono Industrial Erletxe - Erletxe Industrialdeko Enpresa Elkartea (AEPIE-EIEE) deberá disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación vigente que les compete, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

**HAMAIKAGARRENA.- Betekizunak ez betetzea eta itzulketak**

Erakunde onuradunak dirulaguntza gisa jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu denetik itzulketa egitea bidezkoa dela erabakitzen den arte aurreikusitako interesak itzuli beharko ditu, dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorraren 38 eta 39 artikuluetan jasotako kasuetan eta horiek agindu bezala. Horien artean, honako kasu hauek daude:

a) Dirulaguntza lortzeko eskatutako baldintzak faltsutzea edo hura eskuratzea galaraziko zutenak ezkutatzea.

b) Dirulaguntza emateko oinarrizkoa den xedea, jarduera, proiektua ez betetzea edo jarrera ez hartzea, osorik edo partzialki.

c) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo nahikoa ez izatea, Ordenantzaren 32. artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Ordenantzaren 9. artikuluko h) letran eta 14. artikuluan agindu bezala, jardueraren finantzazioaren zabalkundea egiteko betebeharra ez betetzea.

e) Legean eta Ordenantzan aurreikusitako egiaztapenen eta finantza-kontrolaren aurka egitea, aitzakiak nahiz oztopoak jartzea, edo uko egitea, baita kontabilitateko, erregistroko edo agirien kontserbazioko beharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako funtsak zertan erabili diren, helburua bete den edo zein diren diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna; edo ezin bada egiaztatu edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk, estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa izan, helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk aldi berean jaso izana.

**UNDÉCIMA.- Incumplimientos y reintegros**

La Entidad Beneficiaria deberá proceder al reintegro de las cantidades percibidas en concepto de subvención y de los intereses previstos desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos y conforme prescriben los artículos 38 y 39 de la Ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones, y entre los que se hallan los siguientes supuestos:

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente, en los términos establecidos en el artículo 32 de la Ordenanza.

d) Incumplimiento de la obligación de difusión de la financiación de la actividad establecida en la letra h) del artículo 9 y en el artículo 14 de la Ordenanza.

e) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero previstas en la Ley y en la Ordenanza, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentación cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 13

f) Gehiegizko finantzazioa badago, diruz lagundutako jarduerei dagokienez, dirua itzuli egin beharko da.

**HAMABIGARRENA.- Aplikatu beharreko araubide juridikoa**

Honako araudi hauek arautuko dute hitzarmen hau: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta Galdakaoko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra, hain zuzen Udalbatzak 2005eko ekainaren 24ko osoko bilkuran onartutakoa eta Udalbatzak 2007ko azaroaren 28ko osoko bilkuran aldatutakoa.

**HAMAIRUGARRENA.- Hitzarmenaren interpretazioa**

Galdakaoko Udalak interpretatu eta ebatziko ditu hitzarmen hau aplikatzean sor daitezkeen zalantzak.

Eta agertutako alderdiak ados daudenez, agiri honen bi ale sinatu dituzte, ondorio bakar baterako eta goian adierazitako tokian eta egunean.

f) El exceso de financiación con relación al coste de las actividades subvencionadas también será motivo de reintegro

**DUODÉCIMA.- Régimen jurídico aplicable**

El presente Convenio se regirá por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de dicha Ley, y por la Ordenanza General Reguladora de la Concesión de Subvenciones por el Ayuntamiento de Galdakao y sus Organismos Autónomos, aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Galdakao en sesión celebrada el 24 de junio de 2005 y modificada por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 28 de noviembre de 2007.

**DECIMOTERCERA.- Interpretación del convenio**

La interpretación y resolución de las dudas que de la aplicación de este convenio pudieran surgir corresponderá al Ayuntamiento de Galdakao.

En prueba de conformidad de las partes comparecientes firman el presente documento por duplicado y a un solo efecto en el lugar y fecha arriba indicados.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1659 Data: 10/07/2026

Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 13